

8. ROLA.



Gaixo imaginarioa: Molière

0. Sarrera
1. Rolaren 3 aspektuak
2. Rol gatazka
3. Rol tentsioa
4. Erizainaren rola hartzen
5. Erizainaren rola
6. Osasun profesional-gaixo rolak. Garatu beharreko gaitasunak.

0. Sarrera

Rola, antzerki batean, batek jokatzen duen papera da. Bizitzan ere, paper ezberdinak jokatzen ditugu. Horiek gure rola dira. Rola dimentsio askotan aztertu daitezke. Batez ere bi dimentsio ezberdindu nahi nituzke hemen:

- Dimentsio soziala.
- Talde dimentsioa.

Gizartean, profesioak, rol sozial instituzionalizatuak besterik ez dira. Profesioa helduen gauza da (haurrek ez dute profesiorik). Horretaz gainera badaude instituzionalizatuko rol gehiago:

- Aita, seme, aitona.

Taldeetan, subjektuek ez dugu funtzio berdina jokatzen. Batzuk liderrak dira, besteak kritikoak, besteak konformistak, besteak lan egiten dutenak, besteak ideiak ematen dituztenak, batzuk isilak... Egia da batek ez duela beti rol bera jokatzen, baina bai gehienetan. Rol hori oso lotuta dago nortasunarekin eta zerikusia handia dauka txikitatik etxean jokatu dugun rolaekin. Neurri batean, nortasuna ikasitako rola da.

Hemen batez ere rol profesionalaz hitz egingo dugu, eta zehazki erizainaren rolaz.

Halere, hasi aurretik rolaz orokorrean gauza batzuk argitu behar dira:

- Rola zereginak definituriko zerbait da.
- [Rolak erlazio dialektikoa du harremanarekin](#): rola harreman mota bat definitzen du eta harremanak rol berezi batzuk.
- Rola etengabe aldatzen den zerbait da, elkarrekintzaren ondorioz (ez da estatikoa).
- Rol batek, gehienetan, beste rola definitzen du, harremanaren beste aldean dagoenarena. Horregatik rola batek rola laguna izaten du askotan:

Medikua-gaixoa
Erizaina-gaixoa
Irakaslea-Ikaslea
Aita-semea...

1. Rolaren hiru aspektuak

Rol guztiek hiru aspektu dituzte:

- Rol preskritoa
- Rol subjektiboa
- Rol jokatua

Rol preskritoa gizarteak onartzen duena da. Prototipoarekin du zerikusia. Gizartean orokortua dago zein den medikuaren rola, erizainarena, irakaslearena, suhiltzailearena, ertzainarena... Rol horrek igurikapen bat sortzen du besteengan. Besteak rol horren arabera, igurikapen batzuk ditu bestearen jokabideaz. Nolabait, elkarrekintza soziala antolatzekeo baliagarria da. Halere, askotan, rol preskritoa ez dator bat profesionalek nahi dutenarekin. Hau gerta daiteke:

- Aldaketa momentuetan: erizainek rola definitu eta aldatzen duten neurrian, rol preskritoetik urrundu egingo dira.

- Rol preskritoa estereotipatua dagoenean. Erizainaren rola nahikoa distorsionatua egon daiteke hainbat filmatan ikus daitekeenez.

Profesional bat rol preskriptotik urruntzen denean, rol laguna deskolokatu egiten da. Subjektu bat rol horren prototipotik aldentzen denean harridura sortzen du.

Estereotipo sozial askok eragin zuzena dute rol preskritoan eta horrek zaildu egin dezake profesio baten garapena edo aldaketa.

Adibidez, erizaintza profesioa bere rola aldatuz doa: zainketaz arduratzen den profesioa izan nahi du. Halere, urte askotan zehar erizaina "amatxo" moduko bat edo medikuaren laguntzailea bezala ikusia izan da. Gizarteak rol horrekin bat datozen igurikapenak izan ditzake eta erizaintza profesioaren definizioari kalte egin diezaiolke.

Rol preskritoa askotan oso estereotipatua da. Haurrek, jolasen bitartez, rol horiek era estereotipatuan bereganatzen dituzte. Rol sozialen lehenengo esbozoa beraz haurtzaroan ikasten da jolasaren bitartez. Esan bezala oso estereotipatua da. Horregatik, haurrak medikuetara jolasten duenean, medikua egun guztia inyezioak jartzen dituen gizaki bat dela dirudi.

Rol subjektiboa: nahiz eta rol preskritoa era batekoa izan, profesional bakoitzak era ezberdinean integratzen du hori bere nortasunean. Denak ezberdinak gara eta denentzako gure berezitasunak dauzka gure profesioaren rolak. Erizain rola bat dela ikasi dezaket, baina hori nireganatzean, nire berezitasunak hartuko ditu.

Rol jokatua: egiten dudana. Askotan nik ideia bat izan dezaket nire zereginaz baina inguruak bultzatuta aldatu egin dezaket.

Erizain batek pentsa dezake bere rola erabatekoa dela baina lan gainezka dagoelako etab.. beste rol bat bete dezake.

2. Rol gatatzka

Bakoitzak rol asko jokatzen ditugu aldi berean. Ni izan naiteke:

- Irakasle erizaintza eskolan.
- Ikasle beste fakultate batean.
- Nire bikotearen senarra.
- Nire semeen aita.
- Nire aitaren semea...

Aldi berean rol asko dauzkat, baina egoera ezberdinetan batek lehentasuna hartzen du. Nire balio eta ikuspegi arabera rol horiek hierarkizaturik dauzkat eta batek besteek baino gehiago definitzen dute nire identitate soziala. Rol horri rol gorena deritzo.

Sozialki nabarmenena den rola, rol soziala da. Gehienetan rol gorena izaten da baina ez beti.

Ni erizaina naiz eta ama naiz. Batez ere ama sentitzen naiz, hori da nire hierarkian lehena. Nire rol soziala erizaina da baina nire rol gorena ama da. Beste batentzat ordea rol gorena

erizain izatea izan daiteke. Gizon asko urteetan zehar bere lanera buru-belarri dedikatu dira eta aita eta senarra izatea bigarren maila batean egon dira.

Etxeko rola eta laneko rolaren arteko gatazka izaten da estrés iturri garrantzitsuenetako bat.

Maiz, egoera batean bi rol aldi berean jokatu beharrean aurkitu naiteke eta horrek gatazka sortzen du pertsonarengan.

Demagun erizain zarela eta zure ama zaindu behar duzula. Zer rol jokatu behar duzu: erizain edo alaba?

Beste era bateko rol gatazkarik badago. [Rol preskritoa/rol subjektiboa/rol jokatuaren artean gatazka egon daiteke:](#)

- Rol preskritoa/rol subjektiboa. Erizaintzan aldaketak sortu dituzten gehienek horrelako gatazka izan dutela pentsa dezakegu. Erizainaz rol bat espero zen eta beraiek beste era batera ulertzen zuten erizaintza. Bi bide daude horrelakoetan: dagoena onartu edo aldaketa eragin. Horiek aldaketa eragin zuten.
- Rol subjektiboa/rol jokatu. Demagun erizain batek argi duela zein den bere rola. Halere sartzen den inguruan erizainaz beste gauza bat espero da. Berak espero dena egiten du. Horrek rol gatazka sortzen du. Disonantzia kognitiboaren antzeko fenomeno bat gertatzen da: "Nik hau egin behar dela uste dut, baina bestea egiten bukatzen dut". Horrelakoetan aipatu genuen bezala, disonantziak larritasuna sortzen du eta bi bide hartzen ditugu:
 - Justifikatu: ez dago denborarik...
 - Rol subjektiboa aldatu.

3. Rol tentsioa

Esan bezala rola ikasia da. Azken batean, besteei begira ikasi dugu eta beraiek espero dutena betetzen dugu. Erreferente horiek rol-set-kideak dira. Erizaintzaren kasuan erizain rola zein den esaten dutenak eta moldeatzen doazenak. Erizaintzaren rolaren kasuan, irakasleak eta plantako erizainak dira rol-set-kideak.

Ez da arraroa rol-set-kide ezberdinek igurikapen ezberdinak edukitzea erizaintza ikaslearengandik. Maiz esaten duzue eskolan gauza bat erakusten zaizuela eta plantan bestea. Eskolan gauzak era batera egiteko esaten zaizuela eta plantan beste era batetara. Eskolan osotasunari eta harremanari garrantzia ematen zaiola eta plantan ez dela kontutan hartzen... Azken batean, rol-set-kide ezberdinek jokabide ezberdina espero dutela zuengandik.

Horrek rol tentsioa sortzen du. Gehienetan irtenbidea legitimitate edo jakinduri gehien egotzen zaionari jarraitzea izaten da. Rol tentsioa oso arrunta da, eguneroko gauza eta berarekin bizitzen ikasi behar dugu. Rol-set-kideek bakoitzak bere rol subjektiboa du eta hor sor daitezke ezberdintasunak. Halere, horretan datza gizakiaren aberastasuna, horretan eta horren gainean eztabaidatu eta negoziatzean.

Nola konpondu rol tentsioa?

- Denei une guztietan ezin diegula konplazitu argi edukita.
- Rol set legitimoena aukeratuz.

- Gehien zigortu dezaken rol set-a aukeratuz.
- Zeinek eman diezaioke erreputazio galera gehiago?

Rol tentsioa lasaitu daiteke gure rol eraikuntzari garrantzia kenduz, Goffmanek (1961) bataiatutako "rol distancin" prozeduraz. Horren bidez besteei adierazten diegu rol hori ez dela gure bizitza guztia eta gure helburua ez dela horretan hoberena izatea. Oso erabilgarria da hori rol berria ikasten ari garenean eta profesionalak epaitzen dituzten neurri berdinekin epaitzerik nahi ez dugunean. Formazioarekin zerikusia duen norbere eta besteen larritasuna gutxitzeko baliagarria da. Horrelakoetan ere ez dago gaizki gure rolak utzi eta beste batzuenekin aritzea (rol playing). Horrek egiten ditu dibertigarri jolasak

Erizaintza bezalako profesioetan, identitatea osatzen ari den profesio batean, errazagoa da rol tentsioa sortzea. Halere, identitatea oso definitua duten profesioek ere rol tentsioa izaten dute. Gainera, profesio batek rol tentsioa ez edukitzeak adieraziko lukeena zera da: itxitasuna eta zurruntasuna, eta horrek ez du garatzen eta eboluzionatzen uzten. Ez da ahaztu behar rola etengabe negoziatzen ari dela eta malgutasun hori ona dela, aldaketetara egokitzen uzten digulako.

Batzutan pentsa dezakegu ez duela merezi rola finkatzeak. Eredu bakoitzak bere rola definitzen badu, zertarako batetara egokitu? Galdera horri erantzuna eman nahian hara zer dioten Lasa eta Elorzak:

Eredu kontzeptual bati jarraitzearen garrantzia erizain lanean:

- > *Autonomikoki rola asumitzeko*
 - *Norabidea antolatu.*
 - *Eman beharreko zainketak argi definitu.*

4. Erizainaren rola hartzen

Karrera 2. Sozializaioa bezala ikusten da. Bertan profesio bat ikasten da berak eskatzen duen rola jokatzen, berak dituen arau moralekin...

Davies ek ikusi zuen sozializazio horretan ikaslea etapa ezberdinetatik pasatzen dela (1975).

1. *"Hasierako inozokeria"*: Ezagutza laikoan oinarritua. Kristautasunaren edo humanismoaren balio altruistek dominaturik. Ikasleak tresnak bereganatu nahi ditu, gaixoak bere gisa egiteko gauza ez diren gauzak bere ordeztu egiteko.
2. *"Diskrepantzia"*. Diskrepantzia bere eta hezitzaileen arteko igurikapenen artean. Konturatzen dira, laguntzeko tresnak irakatsi beharrean, erizaintzako printzipio nagusietan jartzen dutela arreta, erizain-gaixo harremanaren ezaugarriak adibidez. Horrek frustrazioa sor dezake eta erizaintza ez direla ikasten ari senti dezakete.
3. *Psyching-out* estadioa. Behatzen dute zer den zehazki tutoreek espero dutena.

4. *Rol simulazioa*. Gero tutorea imitatzen saiatzen dira, tutoreek zer baloratzen duten kontutan harturik eta tutoreak konplazitzeko asmoarekin. "Rol distancing" fenomenoak askotan ikusi daiteke etapa honetan".
5. "*Erizain kontzientzia*" (Travelbee, 1966) Erizainaren betebeharrak eta eskubideak bereganatu ditu, bere burua erizain bezala ikusten du eta "rol-set-kideen igurikapenei erantzuten die. Ondo egina eta gaizki egina zer dagoen konturatu hasten da eta bere lankideak irizpide horien arabera epaitzen hasten da. Orain erizainaren rola barneratu du eta bere irudikapena badauka. Orduan bigarren sozializazioa amaitu dela pentsatzen da, erizainaren rola jokatzeko gai baita.

Ikasleak integratu beharra ditu rola berak zituen igurikapenak eta "role-set-kideek" dituzten igurikapenak bere "erizain rola" definitzeko. Hau zaila da, batez ere role-set-kideak ez badaude ados.

Ogier (1984) rebisio batean, ondorioztatzen du, erizain ikasleek rol tentsioa eta rol nahasmena dituztela.

Briggs Report (1972). Esaten du ezberdintasunak daudela eskoletan edo saletan definitzen diren erizain praktiken artean eta horrek ikaslea behartzen duela bi rol ikasi eta zeinek zer espero duen kontutan hartzea. Azpimarratzen du, ikasleak ez daudela pozik salako superbisio eta hezkuntzarekin, ez daudela ziur beraiengandik espero denaz. Ez dakitela langileak edo ikasleak diren.

Orton eta Ogier bat datoz, salako erizainak giltza gisa joka dezaken rol-set kidea dela. Ikaslearen esperientzia eragin garrantzitsua dute bere erakusteko erak, ikaslearen beharrak kontutan hartzea eta bere konpromezua erakusten.

Ortonentzat ere garrantzitsua da salan onartze giroa bizitzea.

Parkes-ek (1982) ikusi zuen sala medikoek estres gehiago eragiten zutela sala kirurgikoek baino. Sala medikoetan eskaera emozional gehiago hautematen zituzten erizainek eta beren lanaren kontrol gutxiago sentitzen zuten. Kirurgikoetan bestetik, aukera gehiago zituzten tresna teknikoak ikasi eta aplikatzeko.

Garrantzitsua da ikasleak "ikasle rola" betetzea.

Halere, rol tentsioa ez da inoiz desagertuko, hezkuntzaren ezaugarriak direla eta.

Ruano (1971). Erizain eskolen joera erizain berritzaileak entrenatzen dituzte, erizain rola aldatu eta garatuko dutenak. Horrek beti aurrean estabilizatutako praktika aurkituko du eta ikasleak eta profesional berriak ez dira gai ikusiko bi igurikapenak bateratzeko (irakasleena eta esperientzia duten erizainena). Lankideak "rol-set kide garrantzitsuak dira eta maiz gauzak dauden bezala onartzea izango da bide errazena rol tentsio hori konpontzeko. Ruano-n hitzetan: "heziketa ez da nahikoa aldaketa instituzionalerako".

5. Erizainaren rola

Erizaintzaren kondairan ikusi duzuen bezala erizainaren rola aldatzen jan da historian zehar. Hiru eredu azpimarratu ditzakegu:

- Erizaina ama bezala. Karitatearekin lotua, profesionaltasunik gabe, ezagutza teknikorik gabe.
- Erizaina medikuaren laguntzaile tekniko bezala. Tekniketan jantzia.
- Erizaina zaintzaile gisa. Teknikak ezagutzen ditu eta bere zeregina medikuaren batazpitik alendu da. Profesio autonomoa bihurtu da. Bere zeregina zainketa profesional ematea da.

Azken ikuspegi horretan ere, badakizue eredu ezberdinak daudela. Ereduak neurri handi batean rola bera definituko du.

Erizainaren rolak, nola ez, erizain -gaixo harreman berezia sortuko du.

Gaurko ikuspegitik, oso garrantzitsua da [Peplauk azpimarratu zituen ezaugarriak](#) (erizainaren rolaz):

1- Gaisoa ezezaguna bezala tratatu behar dugu (kontuz estereotipo eta aurreiritziekin).

- Ezezagun bezala:
- Errespetua.
- Interesa.
- Kortesia.
- Den bezala onartu.
- Emozionalki gai bezala tratatu.

Horrela tratatuko dugu elkarrekintzak beste gauza bat frogatzen ez duen bitartean. (AURRERITZIRIK EZ!)

2- Erizaina errekurtsio gisa. Gaixoaren osasun prozesuan errekurtsio bat da erizaina.

- Gaixoaren galderei erantzun.
- Gauzak nola egingo diren azaldu.

3- Erizaina hezitzaile gisa. Beste gauza batzuen artean heztea da erizainaren lana.

- Informazioa eman.
- Esperientziatik ikasten erakutsi.

4- Erizaina lider gisa. Zainketa planean erizaina liderra da.

- Zainketa planean gaixoak aktiboki parte hartuko du.
- Erizaina zainketen planifikazioan lider izango da:
- Gaixoari erabakiak hartzen lagunduko dio.
- Gaixoarekin kooperatu egingo du.

5- Erizaina ordezkio gisa. Gaixoak transferentzia egiten du erizainarekin. Erizainak ez du joko horretan erori behar.

- Gaixoek erizainak "beste" pertsona bezala har dezakete eta emozionalki ez dagokiona eskatu (transferentzia). Gaixoa "nahastu" egin da (igurikapen okerrak->rol tentsioa).
- Erizainak bere lekuan jarri beharko du.
 - Nori gogorarazten dio? zer berdintasun ikusten ditu?
 - Oroitzen duen pertsonaren funtzioak eta bereak

ezberdinak direla ikusten lagundu

6- Erizaina "aholkulari" gisa

- Gaixoak bizi duena oroitzen eta ulertzen lagundu (integra dezan).
(Erizaintza psikiatrikoan garrantzi gehien duen funtzioa)
- Osasun baldintzen kontzientzia hartzen lagundu.
- Osasunarentzat mehatxagarria dena identifikatzen lagundu.

6. Osasun profesional/gaixo rolak

Galdera horri erantzuteko era bat haxe da: zer espero da eta zer eskubide dituen zehaztu.

Zer espero da gaixoarengandik?

- Gaixotasuna bilatutako zerbait ez izatea.
- Gaixo egon nahi ez izatea eta sendatu nahi izatea.
- Gaixotasuna legitimaturik egotea.
- Gaixotasunak jartzen dituen mugak onartzea.
- Laguntza kompetente eta eraginkorra bilatzea.
- Sendabidean kooperatzea.

Eskubidea du:

- Ohizko arduraz baztertzea (baja, eskolara ez joan, lana ez egin..)
- Lagundua eta zaindua izatea

Zer espero da osasun profesionalarengandik?

- Teknikoki nahikoa gaitasun izatea.
- Gaixo guztiak altruismoarekin eta berdintasunez tratatzea.
- Afektiboki neutroa izatea.

Eskubidea du:

- Gaixoaren intimitatean sartzeko

Osasun profesio bakoitzak bere rola du. Rol bakoitzak zerari erantzuten dio:

-zer?

-nola?.

Erizaintza zainketaren profesio da. Zainketa da zeregina. Nola? Ereduak esaten duten bezala. Hori egiteko, gaitasun batzuk behar dira.

Alde batetik gaitasun teknikoak daude:

- trebetasun motorea hainbat prozedura egiteko...).

Horrez gain adimen gaitasunak daude:

- adimen formala
- arazoak konpontzeko gaitasuna...

Bestelako gaitasun psikologikoak:

- Egiatzkotasuna
- Autobehaketa
- Emozioen bentilazioa
- Ziurgabetasunari tolerantzia

- Frustrazioari tolerantzia.
- Pazientzia
- Baikortasuna
- Iniziatiba
- Autoestima

Harreman gaitasunak:

- Asertibitatea
- Enpatizatzea
- Entzutea
- Eraginkorki komunikatzea
- Laguntza eskatzea behar denean
- Taldean lan egitea

Jarrerak:

- Gaixoa baldintzarik gabe onartzekoa
- Autoezagutzarako grina.

Bibliografia.

- Valencia JF. **Gizakiaren eraikuntza soziala: gizabanakoa errol jokalaria gisa.** Valencia JF. Psikologia sozialera hurbiltzeko zenbait gai. EHU, Bilbo 1992; 4 gaia: 69-87.(316.6 VAL)
- Zupiria X. **Rol profesionala eta osasun-profesionalaren eta gaixoaren arteko harremana.** EN: Zupiria X. Osasun-profesionalaren eta gaixoaren arteko harremana. EHU. Bilbo, 2000

Sakontzeko:

- Belbin M. **Roles de equipo en el trabajo.** Imprenta Universal, Bailbao 1995.
- Peplau HE. **Relaciones interpersonales en enfermería: un marco de referencia conceptual para la enfermería psicodinámica.** Ediciones Científicas y Técnica, Barcelona 1990.
- Scheff TJ. **El rol del enfermo mental.** Amorrortu, Buenos Aires 1970.
- Zupiria X. **Relación enfermo-profesional de la salud.** Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo 2000.

Pertsonaiak:

- Peplau
- Rogers